

## GIDABAIMENA EUSKARAZ PRESTATU ETA ATERATZEKO 2021. URTEKO DIRU LAGUNTZEN DEIALDIA

2021eko maiatzaren 11ko Tokiko Gobernu Batzarrak, gidabaimena ateratzeko azterketa teorikoa euskaraz egin eta gainditu duten Bermeon erroldaturiko biztanleei finantzatzen laguntzeko 2021. urterako diru laguntzen honako deialdia onetsi du:

XEDEA	GIDABAIMENA EUSKARAZ PRESTATU ETA ATERA DUTENEI DIRUZ LAGUNTZEA
DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA	800 €
ESKATZAILEAK	Onuradunak 2020ko uztailaren 8an BAOn argitaratutako Gidabaimena euskaraz prestatu eta ateratzeko 2020. urteko diru laguntzen deialdiaren oinarri zehatzetan azaltzen direnak.
ESKARIA EGITEKO EPEA	2021eko urriaren 1etik 29ra.
ESKARIA EGITEKO LEKUA	-Bermeoko Udaleko Erregistro Orokorrean (Berhaz bulegoa): Ertzilla kalea 6-8. -Bermeoko Udaleko Egoitza Elektronikoa: <a href="https://www.tramiteakonline.bermeokoudala.eus/sede/index.php?id=erregistro_telematikoa">https://www.tramiteakonline.bermeokoudala.eus/sede/index.php?id=erregistro_telematikoa</a> -39/2015 Legearen 16.4 artikuluan zehaztutako bestelako lekuetan.
EMANGO DEN GEHIENEN KOPURUA	150 €
OINARRI ARAUTZAILEAK	2020ko uztailaren 8an BAOn argitaratutako Gidabaimena euskaraz prestatu eta ateratzeko 2020. urteko diru laguntzen deialdiaren oinarri zehatzak eta 2020ko urriaren 26an BAOn argitaratutako oinarrien aldaketa
EBAZPENAREN EPEA	Hilabeteko epea, eskaerak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.
JUSTIFIKAZIOEN EPEA	Eskariarekin batera aurkeztutako dokumentazioan justifikatutakoaren arabera ebazten da diru laguntza.
HELBURUAK BALORAZIO IRIZPIDEAK PROZEDURA	Horiei buruzko argibideak 2020ko uztailaren 8an BAOn argitaratutako Gidabaimena euskaraz prestatu eta ateratzeko 2020. urteko diru laguntzen deialdiaren oinarri zehatzetan azalduta daude.
AURKEZTU BEHARREKO	-Eskaera-orria beteta

DOKUMENTAZIOA

-Nortasun Agiriaren fotokopia  
-Prestakuntza euskaraz jaso eta gainditutako azterketa teorikoa euskaraz egin duela ziurtatzen duen agiria